

**HERRITARREN ARRETAKO ETA
PARTAIDETZAKO SAILAREN ETA
“ASOCIACIÓN DE VECINAS Y VECINOS
BUIA - BILBOKO BUIA AUZOKIDEEN
ELKARTEAREN” ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA,
PARTAIDETZA ARLOKO PROGRAMAK
GARATZEKO**

Bilbon, 2020ko ekainaren xx(E)an

PORTE HARTZAILEAK

Alde batetik, **OIHANE AGIRREGOITIA MARTÍNEZ** andrea, Bilboko Udalaren Herritarren Arretako eta Partaidetzako Saileko zinegotzi ordezkaria. Erakunde horren egoitza Bilbon dago, Venezuela plaza 2, 4. Solairuan – PK: 48001 (IFZ: P-4802400-D).

Eta bestetik, Maria Soledad Antolín Mier andrea (NAN: xxxxxx Asociación de Vecinas y Vecinos Buia - Bilboko Buia Auzokideen Elkartearen presidenteordea (IFZ: : G48292601). Elkarte horren egoitza Bilbon dago, Buia auzoa, 140an. PK: 48003.

Alde biek, lege ahalmen eta eskumen nahikoa onartzen diote elkarri hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako,

HAUXE AZALDU DUTE

I.- Bilboko Udalak diru-laguntzak emateko eskumena du, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 3.1.b) artikulua arabera.

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
EL ÁREA DE ATENCIÓN Y
PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y LA
ASOCIACIÓN DE VECINAS Y VECINOS
BUIA, BILBOKO BUIA AUZOKIDEEN
ELKARTEA, PARA EL DESARROLLO DE
PROGRAMAS DE PARTICIPACIÓN**

Bilbao, a xx de junio de 2020

REUNIDOS

De una parte, Doña **OIHANE AGIRREGOITIA MARTÍNEZ**, en su condición de Concejala Delegada del Área de Atención y Participación Ciudadana del Ayuntamiento de Bilbao, con domicilio en Bilbao, plaza Venezuela, 2-4º - C.P. 48001 y NIF P-4802400-D.

Y de otra, Doña Maria Soledad Antolín Mier, con DNI xxxxx actuando como Vicepresidenta de la Asociación de Vecinas y Vecinos Buia, Bilboko Buia Auzokideen Elkartea con NIF: G48292601 y domicilio en Bilbao, en el Barrio Buia nº 140, - C.P: 48003.

Las partes en la condición en que intervienen se reconocen tener recíprocamente capacidad legal y competencia suficientes para suscribir el presente convenio, por lo que

EXPONEN

I.- Que el Ayuntamiento de Bilbao es competente para otorgar subvenciones de acuerdo con el artículo 3.1.b) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

II.- Bilboko Udalak Herritarren Arretako eta Partaidetzako Saileko 2020ko Aurrekontuan Asociación de Vecinas y Vecinos Buia - Bilboko Buia Auzokideen Elkartearekin hitzarmena sinatzeko diru-laguntza izenduna onartu zuen.

III.- Asociación de Vecinas y Vecinos Buia - Bilboko Buia Auzokideen Elkartea irabazi-asmorik gabeko elkartea da. 1989tik komunitate-lana egin du Buia auzoan, alderdi guztietan auzoa egoera onean mantentzeko eta hobetzeko ekimenak sustatuz; batez ere, partaidetza aktiboko jardueren bidez. Horien artean badaude programa eta tailer batzuk auzokoak elkarrekin aritzea eta inplikatzeko xede dutenak; hain zuzen, berdintasun, konpromiso eta partaidetza handiagoko auzo atseginago eta eragingarriagoa lortzeko, eta horrela auzoan bizi diren pertsonen arteko bizikidetzeta eta lankidetzeta hobetzeko.

Hala,

HAUXE ERABAKI DUTE:

Lankidetzeta-hitzarmen hau formalizatzea honako klausulen arabera:

BALDINTZAK

Bat- Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen helburua Asociación de Vecinas y Vecinos Buia, Bilboko Buia Auzokideen Elkarteari 15.000 euroko zuzeneko diru-laguntza izenduna ematea da, Buia auzoan 2020an auzokoak dinamizatzeko eta horiek parte hartzeko programa batzuk burutzeko. Elkarrekin programa eta aurrekontua aurkeztu ditu; eta horiek 1. eta 2. eranskinetan daude jasota, hitzarmenaren zati baitira eta hortaz, harekin batera sinatu behar dira.

II.- Que el Ayuntamiento de Bilbao aprobó en el Presupuesto para el ejercicio del año 2020 del Área de Atención y Participación Ciudadana una subvención nominativa, para la suscripción del Convenio con la Asociación de vecinas y vecinos Buia, Bilboko Buia Auzokideen Elkartea.

III.- Que la Asociación de vecinas y vecinos Buia, Bilboko Buia Auzokideen Elkartea, es una Asociación sin ánimo de lucro que viene desarrollando desde el año 1989 una experiencia de trabajo comunitario en el Barrio de Buia a través de la promoción de actuaciones encaminadas a mantener y mejorar el Barrio en todos sus aspectos, fundamentalmente a través de actividades participativas activas en las que incluyen diversos programas y talleres que buscan la interrelación y la implicación de sus vecinos y vecinas para trabajar por un barrio más igualitario, más comprometido, más participativo, más agradable y eficaz y mejorar así la convivencia y la cooperación entre las personas que en ese barrio residen.

Así,

ACUERDAN

Formalizar el presente Convenio de Colaboración, con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del Convenio.-

El objeto del presente convenio es la concesión de una subvención directa nominativa de 15.000 euros a favor de la Asociación de Vecinas y Vecinos Buia, Bilboko Buia Auzokideen Elkartea, para la realización en el Barrio de Buia durante el año 2020 de los programas de dinamización y participación de los vecinos y vecinas del Barrio según programa y presupuesto presentados por la Asociación, que se acompañan como Anexo individualizados (1, 2,...) al presente Convenio formando parte del mismo y que serán firmados

junto con éste

Bi.- Hitzarmenaren zertarakoa. Buiako auzoko guztiek modu aktiboan parte hartzea sustatzea izaera askotako programa eta tailer jakin batzuk barnean dituzten jardueretan. Auzokoen berdintasunean, partaidetzan eta konpromisoan oinarritutako auzokoen arteko lankidetzeta eta harremanak sustatzen dituzte programa eta tailer horiek, auzo atseginago baten alde egiteko eta horrela auzoan bizi direnen arteko bizikidetzeta hobetzeko. Hori norbere erroei eta ohiturei eutsita.

Hiru.- Burutzeko epea. Hitzarmena aipatutako jarduera egiteko izango da, ez besterik, eta 2020 ikasturtean egin beharko da. Gobernu Batzordeak dagokion arloko ordezkariari eskuordetzen dio aldaketa horiek egiteko baimena, betiere COVID-19 egoeraren ondorio bada eta etorkizunean diruz lagun daitezkeen programei gainjartzen ez bazaie

Lau.- Izaera eta araubide juridikoa. Hitzarmen honetan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak agintzen du. Zehazki, Legearen 22.2 artikulua dio "zuzenean diru-laguntza hauek eman daitezke:

- a. *Estatuko, autonomia erkidegoetako edo tokiko erakundeetako aurrekontu orokorretan izenez aurreikusitakoak.*

Jarduera hau Herritarren Arretako eta Partaidetzako Saileko aurrekontuaren betearazpenean sartzen da, 2020ko Aurrekontuko Diru-laguntza izendunen

Segunda.- Fines del convenio.- Impulsar la participación activa de todos los vecinos y vecinas del barrio de Buia en aquellas actividades en las que se incluyan varios programas y talleres de diversa naturaleza que promuevan la interrelación y la cooperación entre vecinos y vecinas de manera igualitaria, participativa y comprometida para trabajar por un barrio más agradable y mejorar así la convivencia entre las personas que residen y su entronque con las raíces y las costumbres propias.

Tercera.- Plazo de ejecución.- El ámbito de dicho Convenio comprenderá exclusivamente la realización de la actividad citada, coincidiendo su plazo de ejecución con el año natural 2020. La Junta de Gobierno delega en la Delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones, siempre y cuando se deba a la situación COVID-19 y no se superponga a futuros programas subvencionables.

Cuarta.- Naturaleza y régimen jurídico.- El presente Convenio se rige por las normas de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. Concretamente, su artículo 22.2 dispone que "*podrán concederse de forma directa las siguientes subvenciones:*

- a. *Las previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Estado, de las Comunidades Autónomas o de las entidades locales*".

La presente actuación tiene su encaje dentro de la ejecución del presupuesto del Área de Atención y Participación Ciudadana, en el Anexo de Subvenciones Nominativas del

Eranskinean. Gastua aurrekontuko partida honetatik ordainduko da: APG 2020 14010 92410 4819900.

Bost.- Diru-laguntzaren zenbatekoa eta burutzeko epea. Herritarren Arretako eta Partaidetzako Sailak 15.000 euroko diru-laguntza emango du, hain zuzen ere aipatutako jarduerak 2020an dakartzan gastuak ordaintzeko, ez beste ezertarako. Helburu bererako beste laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuk eskatzen badira, horien batuketa ezingo da diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan; handiagoa balitz, dirua itzuli beharko litzateke. Onuradunak Herritarren Arreta, Partaidetza eta Barrutien Sailari jakinaraziko dio jarduera honetarako jasotako beste laguntza batzuk daudela.

Sei.- Diru-laguntza ordaintzea. Diru-laguntza aldeztu aurretik ordainduko da, hitzarmena sinatu ondoren. Horretarako, ziurtatu egin da onuradunak ez daukala zorrik Udalarekin edo beste batzuekin, zorren bat edukitzeak arriskuen jarriko lukeelako diru-laguntzaren ordainketa. Gainera, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, onuradunak erakutsi du ez daukala zorrik zergetan edo Gizarte Segurantzari, eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Gizonezkoen eta Emakumezkoen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2. artikulua ezarritako debekuetan ez dagoela ziurtatzen duen erantzukizuneko adierazpena aurkeztu du.

Presupuesto del 2020, imputándose el gasto previsto a la partida APG 2020 14010 92410 4819900.

Quinta.- Importe de la subvención y plazo de ejecución.- El importe de la subvención por parte del Área municipal de Atención y Participación Ciudadana ascenderá a 15.000 euros y su destino será exclusivamente la participación en los gastos que genera la actividad citada en el año 2020. En caso de que se recurra a otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos para la misma finalidad, la suma de las mismas no podrá superar el coste de la actividad subvencionada, en cuyo caso daría lugar al reintegro correspondiente. La beneficiaria deberá poner en conocimiento del Área de Atención y Participación Ciudadana la existencia de otras ayudas recibidas para esta actividad.

Sexta.- Abono de la subvención.- El abono de la subvención se realizará con carácter anticipado, tras la firma del presente convenio. A tales efectos se ha acreditado que no existen deudas del beneficiario con el Ayuntamiento o con terceros, que puedan comprometer el abono directo del importe de la subvención al mismo. Además de lo anterior, la entidad beneficiaria ha demostrado, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y su inexistencia como empresario frente a la Seguridad Social, habiendo presentado, además, declaración responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones a que se refiere el art. 13 de la ley General de Subvenciones, ley 38/2003, de 17 de noviembre y el art. 24.2 de la Ley 4/2005, para la igualdad de hombres y mujeres.

Zazpi.- Azpikontratazioa. Diruz lagundutako jarduera muga barik azpikontrata daiteke, baina jardueren betearazpen osoa edo partziala ezingo dira inolaz ere itundu Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako debekuetako baten barruan dauden pertsonekin edo erakundeekin, diru-laguntzaren jasotzailearekin lotura duten pertsonekin edo erakundeekin (Arautegiaren 68.2 artikuluan dago zehaztuta zeintzuk diren loturak) eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.7 artikuluan adierazitako gainerako pertsonekin.

Zortzi.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta hitzarmenaren indarraldian egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratzeko-kostua ezingo da izan inola ere merkatu-balioa baino handiagoa.

Bederatzi.- Zabalpena eta erakundea identifikatzea. Edozein kasutan, Hitzarmen honen helburu den proiektuaren zabalpenean, sustapenean edo publizitatean Bilboko Udala aipatu beharko da, eta proiektua aurkezteko eta emateko eta publizitatea egiteko egiten diren agiri guztietan Bilboko Udalaren logotipoa ipini beharko da, ikusteko moduan.

Argitalpenetan, gainera, edukiaren erantzukizunaren klausula bat ere jasoko da, hau dioena: *Bilboko Udalak finantzatu du proiektu hau. Hala ere, edukiaren erantzule bakarra entitate onuraduna da.*

Séptima.- Subcontratación. – Se establece la posibilidad de subcontratar la actividad subvencionada sin límite, si bien en ningún caso podrá concertarse la ejecución total o parcial de las actividades con personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del art. 13 de la Ley General de Subvenciones, ni con personas o entidades vinculadas con el beneficiario (considerándose que existe vinculación en los casos recogidos en el art. 68.2 del Reglamento), ni con las demás personas previstas en el art. 29.7 de la Ley General de Subvenciones.

Octava.- Gastos subvencionables.- Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo de vigencia del Convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Novena.- Difusión e identificación institucional.- En todo caso, la difusión, promoción o publicidad del proyecto objeto del presente Convenio, deberá incluir la mención al Ayuntamiento de Bilbao y todo documento elaborado para su presentación y entrega y para su publicidad deberá incorporar de forma visible el logotipo institucional del Ayuntamiento de Bilbao.

En el caso de publicaciones, se deberá incluir además una cláusula de responsabilidad del contenido, con el siguiente texto: *El presente proyecto ha sido subvencionado por el Ayuntamiento de Bilbao, siendo, no obstante,*

Era berean, diruz lagundutako programaren edo jardueraren publizitatea egiteko elementu moduan erabiliko diren kartelak, testuak eta dokumentuak hizkuntza ofizial bietan, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, idatzita egongo dira. Era berean, programaren zabalkundea egiteko jendaurreko agerraldiak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, hurrenkera horretan.

Hamar.- Programaren aldaketak. Programan funtsezko aldaketak egin ahal izateko, aldeztu aurretik Bilboko Udalari eskatu behar zaio idatziz; aldaketak egiteko beren-beregiko baimena eman behar du Udalak.

Funtsezko aldaketak egiteko eskariak arrazoiturik egongo dira eta aurrekontuan eta kronograman izango duten eragina zehaztu beharko da. Gobernu Batzordeak Saileko ordezkariari eskumena ematen dio aldaketa horiek baimentzeko.

Funtsezko aldaketatzat jotzen dira honako hauek:

- Helburu orokorretan eta/edo zehatzetan egindakoak.
- Onartutako aurrekontuko partidetan % 20tik gorako aldaketak (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ez dute eraginik izango zeharkako kostuetan), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez dutenean.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea dakarrenean, Gobernu Batzordeak onartu behar du.

su contenido responsabilidad exclusiva de la entidad beneficiaria.

Asimismo, se deberán utilizar ambas lenguas oficiales, euskera y castellano, en los carteles, textos y documentos que se elaboren como elementos de publicidad del programa o actividad subvencionada. De igual modo, las intervenciones públicas de promoción ligadas a la actividad objeto de subvención serán bilingües utilizando el euskera y el castellano en ese orden.

Décima.- Modificación del programa.- Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao, quien deberá expresamente autorizarla.

Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la Delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Diru-laguntzaren izaera eta helburuak funtsean aldatzen ez dituzten gainerako aldaketak justifikazioaren unean onartu ahal izango dira, betiere aldaketok onartzean beste batzuen eskubideetan kalterik egiten ez denean.

Hamaika.- Diru-laguntzaren justifikazioa. Jarduera bukatu eta gehienez ere hiru hilabetetan justifikatu beharko da diru-laguntza. Horretarako, justifikazio-kontua eta gastuaren justifikanteak aurkeztu beharko dira:

- a) Programa betearazteko egin diren jardueren memoria, horien azalpena eta izandako emaitzak.
- b) Programaren betearazpenean izan diren gastuen eta sarreraren balantzea. Horretarako, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta hitzarmenean ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratzeko kostua ezingo da izan inola ere merkatu-balioa baino handiagoa.
- c) Programa betearazteko aurreikusitako epe barruan egindako gastuak egiaztatzen dituen jatorrizko agiriak. Horretarako, hauek desberdinduko dira:
 - Programarekin zuzenean lotutako kostuak: oso-osorik justifikatu beharko dira, fakturen

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros

Undécima.- Justificación de la subvención.- Se deberá justificar la misma en el plazo máximo de tres meses desde la finalización de la actividad, presentando para ello la cuenta justificativa, con aportación de los justificantes de gasto, que incluirá:

- a) La memoria de las actividades llevadas a cabo para la ejecución del programa, con explicación de las mismas y los resultados obtenidos.
- b) El balance de gastos e ingresos correspondiente a la ejecución del programa. A estos efectos, se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el Convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.
- c) La documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose a estos efectos:
 - Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa deberán quedar justificados en su totalidad,

eta balio bereko gainerako ziurtagirien bidez. Gastuak justifikatzeko agirietan, datu hauek sartuko dira, nahitaez:

- Pertsona onuradunaren identifikazioa.
- Gastua zertan egin den. Zuzeneko zerikusia izan beharko du programa gauzatzearekin.

Era berean, justifikatzen den programari buruzkoak bakar-bakarrik izango dira justifikazio-agiriak. Salbuespen modura, enpresa-buruak edo profesionalak ez diren pertsonak noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsariaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaportea). Ordainsaria 200 euro baino handiagoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea. Langileen gastuak justifikatzeko nominak eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztu behar dira.

Langileen gastuak justifikatzeko nominak eta Gizarte

mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente. Los documentos que soporten la justificación de gastos incluirán, en todo caso, los siguientes datos:

- La identificación de la persona beneficiaria.
- La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.

Asimismo, los documentos que soporten la justificación se circunscribirán únicamente al programa que justifican. Con carácter excepcional, en supuestos de actividades llevadas a cabo ocasionalmente por personas que no ostenten la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte) de la persona perceptora, a la que se acompañará necesariamente, cuando su importe sea superior a 200 €, el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora. Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.

Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztu behar dira.

Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.

- Zeharkako kostuak: beren-beregi eskatu ezean, ez da ezelako ziurtagirik aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, pertsona edo erakunde onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauekin bat etorrira eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari dagokion kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa. Justifikazioa egiteko, onar daitekeen zeharko kostuen portzentajea diru-laguntza emateko oinarria izan den aurrekontuan entitateak azaldutako bera izango da eta benetan justifikatutako gastu zuzenen gainean aplikatuko da.

- Los costes indirectos, para los que, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes habrán de imputarse a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, la imputación llevada a cabo pueda resultar superior al 10 por ciento de los costes directos del programa subvencionado. A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el mismo que el declarado por la entidad en el presupuesto que sirve de base para la concesión de la subvención, y se aplicará sobre los gastos directos efectivamente justificados.

Justifikatzeko derrigortasuna bete ezean edo nahikoa justifikatzen ez badu, onuradunak jasotako diru-kopurua itzuli beharko du, berandutzako interesak barne, Diru-laguntzei

El incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente traerá como consecuencia la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, junto con el interés de demora, en los términos establecidos en el

buruzko Legearen 37.1 artikuluan ezarri bezalaxe.

apartado 1 del artículo 37 de la Ley General de Subvenciones

Hamabi.- Ogasun Publikoaren aurkako delituak.- Arau-hauste penala da honakoa, Zigor Kodearen 308. artikulua araber:

1.- Administrazio publikoengandik hamar mila euro baino gehiagoko dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzea, haiek eskuratzeko baldintzak faltsutuz edo haiek eskuratzea eragotziko luketen datuak ezkutatzuz.

2.- Administrazio publikoen funtsekin osorik edo zati batean ordaindutako jardun bat gauzatzean, funts horietatik hamar mila euro baino gehiago erabiltzea bidegabeki, hau da, diru-laguntzek edo laguntzek izendatuta zuten xedeez bestelakoetarako.

Eta ados daudela adierazteko, agiri honen ale bina sinatu dituzte, ondorio bakarrerako, hasieran adierazitako lekuan eta egunean.

**HERRITARREN ARRETA KO ETA
PARTAIDETZAKO SAILA**

Izenpetua:
OIHANE AGIRREGOITIA MARTINEZ

Duodécima.- Delitos contra la Hacienda Pública.- Constituye infracción penal, según el artículo 308 del Código Penal:

1.- La obtención de subvenciones o ayudas de las Administraciones Públicas por importe superior a diez mil euros falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubiesen impedido.

2.- En el desarrollo de una actividad sufragada total o parcialmente con fondos de las Administraciones Públicas, la aplicación de los mismos, en una cantidad superior a diez mil euros, a fines distintos de aquéllos para los que la subvención o ayuda fue concedida.

Y en prueba de conformidad, los otorgantes suscriben el presente documento en duplicado y a un solo efecto, en el lugar y fecha indicados al inicio.

**ASOCIACIÓN DE VECINAS Y VECINOS BUIA
- BILBOKO BUIA AUZOKIDEEN ELKARTEA**

Izenpetua:
MARIA SOLEDAD ANTOLÍN MIER